

## JARDUERAK

Aurretik esan bezala talde hau sortzean gure helburu nagusizat kostuak murriztea jarri genuen, horregatik taldean hainbat abilezia desberdin ditugu.

Guk produzituko dugu gure produktua, gure taldean ingeniari bat dugunez, horrek erraztasunak emango dizkigu zer egin pentsatzerako orduan. Lehenik eta behin, horren diseinua egingo dugu, koloreak, formak... aukeratuz, ala ere bezeroak kolorea aukeratu ahal izango dute, guk hainbat aukera emango dizkiegulako erosterako orduan. Hasierako diseinua mugatua izango da, diru kantitate murriztua izango dugulako. Salmentak egin ahala, esan dugun bezala bezeroak ere aukeratzeko aukera izango dute.

Arazoei begira, gu ahaleginduko gara hori konpontzeaz. Alegia, arazoren bat edukita korreoz edota telefonoz adierazita produktua itzuli eta konponduko dezakegu edo beste batekin trukea egingo dugu konpondu ezina bada.

Salmenten bidez lortutako irabaziak gure produkzioa handitzeko bideratuko dugu. Aurrerapen arloa izango litzake aukera egoki bat adibidez.